

## **KULTURA - KIROLA SEKTOREKAKO BATZARRA**

### **Igorren, 2011ko urri lehenengoaren 22ean**

Kultur etxeko aretoan hogeit hamar herritar batu dira udal gobernuak dakazan proposamenak entzuteko eta euren ekarpenak egiteko. Bilduko bost ordezkari etorri dira, EAJ-PNVtik bi eta Igorre Danontzatek ordezkari bat izan dau.

Diru sarrerak nondik datozen azaldu dau alkateak, grafiko baten bidez. Tasak eta zergak %36, udalak tramitetan dauazanak %45, inbertsinoetarako diru laguntzak %13 eta besteak %6.

Gastuen atalean be, obretako inbertsinoak %30 daroa, gastu korrientean %35, soldatak eta prestakuntza %23.

Kirola eta kultura diru partidak eta gastuak zeintzuk izango diran zehaztu dau Karmele Aurrekoetxea, kultura, kirola eta euskara zinegotziak. Mantenimendu gastuak %51ko partida daroa. Polikiroldegia eta igerilekua abuztuaren zabalteko eskaeraren erantzuna ikusi da, datuak ez dabe holangorik irudikatu, jende gitxik erabili izan dau

Instalazioetan hobekuntzak: igerilekuko kondentsasinoa, aldageletako dutxak, goiko frontoiko arralakala, rugby zelaian egin beharreko konponketak, dantza aretoan, kultur etxeko pantaila barriztu beharra ikusi da.

Parte hartzea bultzatu beharra ikusi da, dirulaguntzak mantenduteko konpromisoa hartzen da udal gobernutik, ordenantzen tramitazioa arindu eta ekintzak ahalik eta zabalen hartu.

Dirulaguntzen arloan gitxieneko batzuk eskatzea proposatzen dau, balorazioaren arabera diru laguntzak banatzea, bardintasuna kontuan hartzea, ekintzen justifikanteak

Herriko musika taldeak eta artistak bultzatu, lana kanporatzen lagunduz, torneoak antolatzen lagundu, gazteari eta auzoari indarra emon eta euskara herriko gune desbardinatan landuz joan.

Asier arratiko futbol taldea: Ordenantzan ganean dana ondo aurkeztu ostean taldeari dirua jarraian emotea eskatu dau. Janire kultur teknikariak udalbatzaren erritmoak eragiten dautsola esan dau eta prozedura administratiboak ezartzen dabezana mugak direala. Diruen falta handia izan leikeela gaineratu dau futbol ordezkariak, gastu konkretuak. Martiaren erdi ingururako emotearen aukera eta ahalegina erakutsi dau teknikariak, aholkularitza be emonez igaz egin zan lez.

Idoia Legarretak bardintasuna elkarteetan definitu beharra dagoala azaldu dau. Proposamen moduan aitatu dala ohartarazo dau kultura zinegotziak. Ordenantzan ganeke azalpena emon dau kultura kirol teknikariak.

Norbanakoen proiektuak ze partidatan kokatu zalantza azaldu dau Zertuko kideak. Kulturaren sustapenean hutsune bat dagoala aitortu dau teknikariak galdera horri erantzunez. Jaiak eta euskara kulturako diru partidatik kentzea esan dau, auzoetako jaiak eta erdigunekoak bereziz.

Aritz Arrizabalagak boltsa berean dirua egon arren lehenagotik auzoetarako dagoan diru kopurua argitzea komeni dala esan dau antolaketa hobetzeko.

Kultur etxeko ekintzak jende gitxikoak diranean posible dan galdetu dau kortina bidez edoí

Txirringaritzako ordezkariak, futbol zelaiko zirkuituaren inguruko problema planteau dau. Ume gazteak bidera urten ezin dauriela eta oinezkoen eta txakurren paseo leku bihurtu dala salatu dau. Bizikletan bide gorria markatzea eskatu dau, bizikleta markaren bat edo oinezko jendea oinezkoentzakoetara bideratuz. Harri txokorrek kentzea AZEko inguruetatik. Atletismokoen defentsan urten dau Aritz Arrizabalagak, kontuan hartzeko talde bat dalako ebatzi bat hartu baino lehen.

Intxaurbizkar taldeari proposatu jakonan barri emon dau Jokine Aldeiturriagak. Arlo ekonomikoak kezka sortzen deusola adierazo dau. Kiroleko partidak kiroldegiak daroazalako, teknikariak dino hobea izango zala kirolak bat izatea eta kiroldegiak beste bat ikastaroak egiteko.

Ongizate eta bardintasuneko zinegotzia dan Soraya Lizundiak diru laguntzak banatzeko orduan genero ikuspegia kontuan izatea eskatu dau.